

JANAVAK



MUNDUKO
HIRITARROK



Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia



ALDAN



Bideoaren laburpena

JANAVAK *Indiako Gujerat estatuko dantza- eta musika-taldea da. 2002ko azaroan, ALBOANek gonbidatuta, bira handia egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan. Bideo hau topaketa baten kronika da, bira horren inguruan izan ziren milaka topaketa txikiren kronika. Sukaldaritza-tailerrak, musikariekin saioak, dantza-tailerrak, entseguak, kontzertuak daude zinta honetan. Esanahi handiko historiak kontatzen dira: mugikor bat erostea, Gernika bisitatzea, Printzipal antzokiko kontzertua, hirigunean aparkatzeko zailtasunak. Hori dena Indiatik mundura tolerantzia eta errespetu, festa, kultura eta bakez beteriko mezua zabaltzeko bidaiatzen duen artista-talde baten ikuspegitik.*

Aurkezpena

Zer da kultura guretzat? Zer dakigu Indiari buruz? Herrialde horren eta han bizi den jendearen zer irudi dugu? Zein estereotipok baldintzatzen gaituzte?

LGaldera horien erantzunak ez dituzu bideoan, ez eta orrialde hauetan ere aurkituko. Baina biek hausnarketa eragiteko eta zalantzan jartzeko botoia sakatu nahi dute, erantzunak aurkitu ahal izateko.

Material honetan JANAVAK bideoaren edukiak lantzeko berariaz diseinatutako eta hautatutako zenbait jarduera azaltzen dira. Bideoan azaltzen diren irudiei eta kontatzen diren historiei buruzko gaiak lantzeko aukera ematen duen proposamen didaktikoa da. Kulturen arteko harremanak, elkarrizketak, errespetua, aniztasuna, artea, erlijioa, espresio kulturalak eta beste zenbait gai elkarrekin nahastuz garatzen dira jarduerak. Eta, ondorioz, metodologia desberdinak erabiliz, hausnarketarako, elkarrizketarako eta aurkikuntzarako bidean jartzen duen materiala lortzen da.

Bideoa pertsona helduekin lan egiteko tresna erabilgarria eta egokia bada ere, jarduera-gida 14-18 urte bitarteko pertsona-taldeentzat prestatu da batez ere. Hala ere, jardueren aldakortasuna eta barietatea dela medio, material hau adin desberdinetako taldeekin lan egiteko aukera ematen duen gida da. Bestalde, jarduera horiek nahiko irekiak dira, eta ezaugarri desberdinak dituzten taldeei egokitzeko aukera ematen dute, gainera, nahiko independenteak dira eta banaka zein taldeka erabil daitezke. Finean, testuinguruaren, taldearen, aurreikusitako helburuen eta denboraren araberak, materiala hainbat modutan erabil daiteke, egoera jakin bakoitzari egokitzeko.

Helburuak

- Kultura bati eta kultura horretako pertsoneri buruzko aurreiritzi eta estereotipoak antzematea eta gainditzea.
- Munduari begiratzeko hainbat modu daudela kontuan hartzea eta horretaz kontzientziaztea eta, eurozentris-moa gaindituz, errealitatea aztertzea.
- Norberarena ez den kulturarekiko elkarrizketarako eta errespetuzko jarrera adieraztea.
- Indiaren ikuspegi positiboa aurkitzea eta transmititzea.
- Talde-lana egitea.

Metodologia

Jarduerak garatzeko proposatutako metodologia ikasteko eta aurkikuntzak bultzatzeko esperimentazioaren eta hausnarketaren bidea erabiltzearen aldekoa da. Urrun dauden ohiturak eta kulturak hurbildu eta hurbileko errealitate bilakatzen dira, kultura horiek ulertzen laguntzeko eta kultura horiei eta geure buruari hainbat ikuspegitik begiratzeko gai izateko.

Jarduera baten ondoren, ondorioak norberak egindako aurkikuntzen bidetik iristen dira. Hainbat teknika eta estrategia parte-hartzailek metodologia-mota horren alde egiten dute, ezagutzeko eta bizitzeko helburuarekin: aurretiazko ideiak antzematea, elkarrizketak eta eztabaidak, irudimenezko bidaiak, balioen barometroak, prentsa-azterketak... Lankidetzaren eta talde-lanaren alde egiten duten prozeduren proposamen berezi honi esker, jardueragida hau material irekia, praktikoa eta erabilgarria da hezitzaileentzat eta, bestalde, motibatzailea da ikasleentzat.

Jarduerak bi bloketan biltzen dira. Lehenean, JANAVAK bideoa eman baino lehen aplikatzeko jarduerak proposatzen dira, aurretiazko ideiak eta aurreiritziak lantzeko. Bigarren blokean, bideo-emanaldiaren ondoren egiteko hainbat jardura sartzen dira, eta bideoan azaltzen diren alderdiak sakontzeko eta aztertzeko aukera ematen dute. Jarduera batzuk bideorik gabe erabil daitezke, baina bideoa erabiltzeko gomendioa egiten dugu.

Ebaluazioa

Aurreikusitako helburuak lortzeko tresna gisa, bideoaren eta materialaren erabilgarritasuna balioztatzeko, taldearen ebaluazio-irizpideak aurkezten ditugu:

Ebaluazio-irizpideak	1	2	3	4	5
Bideoko edukien ulertze-maila.					
Beste kultura bat ezagutzeko interesa.					
Kulturen arteko harremanaren inguruko jarrera.					
Aurreiritzi pertsonalak eta gizartearenak zalantzan jartzeko eta aztertzeko gaitasuna.					
Lan-taldeen parte hartzeko maila.					
Lan-taldearen elkarrizketarako eta lankidetzarako jarrera.					

Halaber, ikasleek lan honen balioa baloratzea proposatzen dugu.

Zure iritzia jakin nahi dugu. Eman 1 (ezer ez) eta 5 (asko) bitarteko puntuazioa	1	2	3	4	5
Bideo-emanaldia baino lehenagoko talde-lanak landu nahi ziren alderdien ikuspegia zabaltzen lagundu dizu?					
Emanaldiaren ondoren egindako jarduerak bideoan azaltzen ziren alderdiak zehazten eta argitzen lagundu dizute?					
Metodologia egokia erabili da?					
Landutako edukiak interesgarriak eta garrantzitsuak izan dira?					
Adierazi, beheko lerroetan, landutako jardueren izenburua eta eman puntuazio bat.					
•					
•					
•					
•					

Irakozkunak / Oharrak:

- Zein alderdi hobetuko zenuke (metodologia, edukiak, jarduerak)? Zergatik?

.....

.....

.....

.....

- Lan guztian, zein alderdik eragin dizu hausnarketa eta zalantza?

.....

.....

.....

.....

Balorazio eta iritzi guztiak ezagutzeko –izan ere, oso garrantzitsuak dira hezkuntza-materialak egiteko orientazio moduan–, zuen ebaluazioak bidaltzeko eskatzen dizuegu.


ALBOAN

Aita Lojendio kalea, 2 – 2. • 48008 **Bilbo** • alboanbi@alboan.org • 944 153 592
Bergamín kalea, 32 • 31004 **Iruñea** • alboanna@alboan.org • 948 231 302
www.alboan.org

Gainera, ALBOANek Indiari buruzko bi erakusketa ditu, eta eskatzen dituzten erakundeen eskura jartzen ditu:

- **Barneratu Indian adivasiekin:** adivasiei –Indiako lehen biztanleak– buruzko 11 panel, gaur egun bizitzeko modua eta lankidetzaren proiektuen bidezko etorkizuneko proposamenak.
- **Indiarekin aurrez aurre:** herrialde liluragarri horretako kultur, arte- eta giza aniztasunari buruzko 2 panel eta 32 argazki.

Informazio gehiago behar baduzu, jarri ALBOANekin harremanetan.



Gaur egun, gero eta indar handiagoa du kultur aniztasunak. Hori, batzuetan, gatazka-iturri izaten da, eta, besteetan, elkar aberasteko oinarria.

Beraz, **kulturen arteko harremanaren** gaia lantzeko, 3 alderdi hauek lantzea garrantzitsua dela uste dugu:

1. Kulturaren kontzeptua eta ezaugarriak.
2. Gure jarrera beste kulturekin harremanak ditugunean.
3. Kulturak harremanetan jartzen direnean.

1. Kulturaren kontzeptua eta ezaugarriak.

Gutxiengo etnikoak eta gu geu kultura baten parte gara. Baina, zer da kultura guretzat?

Plog eta Bates-en iritziz (1980), kultura hau da: "Gizarte bateko partaideek elkarrekin eta beren munduarekin interakzioan erabiltzen dituzten sinesmen-, balio-, ohitura-, jokaera- eta gailu-sistema da, eta belaunaldiz belaunaldi ikasita transmititzen da".

Kulturaren ezaugarriak:

- **Kultura ikastea da:** Kultura ikasi eta transmititu egiten da. Hizkuntza, jokamoldeak, harreman-moduak, munduaren ikuspegiak, etab. ikasi egiten ditugu. Ikasten duguna gure jardueren bidez transmititzen dugu. Beste kultura batzuekin harremanetan, elkarrekin ikas ditzakegu hainbat elementu, baina ikasteko prozesua ez da osoa izango, eta, halaber, ezingo diogu gure kulturari berari uko egin.
- **Kulturak zentzua ematen dio errealitateari:** Errealitatea antzematen dugunean, esperientzietatik, balioetatik, sinesmenetatik eta abarretatik sortu eta buruan ditugun eskemen arabera antzematen dugu. Kulturak errealitatea ikusteko eta antzemateko modu bat ematen digu. Pertsona bat ulertzeko, pertsona horrek errealitatea ikusteko duen moduan zentratu behar dugu.
- **Kultura ikurren bidez transmititzen da:** Kultura ere ikurra da. Ikur asko partekatzen ditugu kultura batean. Ikur bidezko komunikazio bikainena hizkuntza da.
- **Kultura osotasun integratua da:** Kultura sistema bat da. Beraz, kultura baten edozein gauza ulertzeko, testuinguru horretan kokatu beharra dago. Kulturari harreman-moduak, antolamenduak, etxebizitza etab. izan behar dira kontuan.
- **Kultura berezitasunez osatuta dago:** Kultura bat osatzen duten pertsonak ez dute hura berdin bizi, adinaren, gizarte-klasearen, maila sozioekonomikoaren, jatorrizko etniaren eta abarren arabera.
- **Kultura egokitzapen-gailu bat da:** Kulturak dinamikoak eta konplexuak dira, eta egoera berriei egokitzeko prozesuaren arabera aldatzen dira. Migrazio-prozesua, berez, aldaketa-faktore bat da. Migrazioak aldaketak eragiten dizkio immigranteen komunitateari berari eta harrera egiten duten gizarteei eta jatorrizkoei.

Kulturak giza aniztasunean eragiten du.

2. Gure jarrera beste kulturekin harremanak ditugunean

Beste kultura batzuekin harremanak ditugunean hiru jarrera ager daitezke:

- **Etnozentrismoa:** Beste kulturetara haiek gure kulturean oinarrituta aztertuz hurbiltzea da. Gure kulturaren betaurrekoak jarrita aztertzen ditugunez besteak, ez ditugu ulertzen.
- **Erlatibismo kulturala:** Norberaren kultur balioetan oinarrituta beste kultura batzuk ezagutzea eta aztertzea proposatzen duen jarrera da. Kultura guztien berdintasuna ezartzen du. Jarrera hori daukagunean, ez dugu baloraziorik egiten eta errespetatu egiten ditugu beste kultur adierazpenak. Jarrera honen hitz gakoa **errespetua** da. Baina hori besterik ez da, errespetua eta tolerantzia: "Nik errespetatu eta ulertzen zaitut, baina zu zurean eta ni nirean". Jarrera honi kulturak elkartzeko bideak bilatzea falta zaio.
- **Kultur artekotasuna:** Jarrera honek, beste kulturekiko errespetuan oinarrituta, kultur erlatibismoaren gabeziak gainditzen ditu. Hartara, berdintasunean elkartzeko bidea bilatzen du.

3. Kulturak harremanetan jartzen direnean

Zer gerta daiteke gehiengo bat eta gutxiengo bat elkartzen direnean?

Galdera horrentzat lau erantzun izan daitezkeela uste dugu:

- **Integrazioa:** Integrazioa gertatzen da kultur nortasuna eta ohiturak gorde eta erlazio positiboak bilatzen eta baloratzen direnean. Aniztasuna errespetatzen da, baina, halaber, erlazio positiboak bilatzen (kultur artekotasuna).
- **Asimilazioa:** Asimilazioa gertatzen da kultur nortasunik eta ohiturarik gorde ez, baina erlazio positiboak bilatzen eta baloratzen direnean.
- **Bereizketa:** Bereizketa gertatzen da kultur nortasuna eta ohiturak gordeta erlazio positiboak saihesten direnean (erlatibismo kulturala).
- **Bazterketa:** Bazterketa gertatzen da kultur nortasunik eta ohiturarik gorde ez eta erlazio positiborik sustatzen ez denean.

* Iturria: COLECTIVO AMANI (1994). Educación Intercultural. Análisis y resolución de conflictos. Madrid: Popular, S.A.



Emanaldia baino lehen

Nola ikusten dugu geure burua? Nola ikusten gaituzte?

Helburuak:

- Nork bere burua hobeto ezagutzea.
- Jarrera autokritikoa izatea eta beste pertsonen egindako kritika konstruktiboa onartzea.
- Guk geure buruaz dugun irudiaren eta besteek gutaz duten irudiaren arteko aldea ikustea.

Garapena:

Pertsonen jarrera komunak islatzen dituzten adjektiboen zerrenda aurkezten zaio taldeari.

- Zerrenda irakurri ondoren, norberaren burua hobekien deskribatzen duten bost adjektiboak hautatu behar dira, alegia, nork bere ezaugarri ohikoenak hautatu behar ditu. Zerrenda azaltzen ez diren adjektiboekin osa daiteke.
- Gero, bikoteka bildu eta batak bestea identifikatzeko bost adjektibo hautatu behar ditu. Emaizak alderatu eta desberdintasunen gainean eztabaidatu behar dute.
- Azkenik, talde handian, proposatutako galderari buruz eztabaidatu behar da.

Materiala: Adjektibo-zerrenda eta eztabaidarako galderak.

Iraupena: 40 minutu.

Soy una persona...						
<input type="checkbox"/> Dibertigarria	<input type="checkbox"/> Bakartia	<input type="checkbox"/> Konprometitua	<input type="checkbox"/> Autonomoa	<input type="checkbox"/> Lotsatia	<input type="checkbox"/> Bizia	<input type="checkbox"/> Atsegina
<input type="checkbox"/> Alaia	<input type="checkbox"/> Kritikoa	<input type="checkbox"/> Ezkorra	<input type="checkbox"/> Baikorra	<input type="checkbox"/> Dudatsua	<input type="checkbox"/> Besteiei emana	<input type="checkbox"/> Gozoa
<input type="checkbox"/> Isila	<input type="checkbox"/> Ipurtarina	<input type="checkbox"/> Zalantzia	<input type="checkbox"/> Arduratsua	<input type="checkbox"/> Adiskidetsua	<input type="checkbox"/> Inkonformista	<input type="checkbox"/> Maitagarria
<input type="checkbox"/> Egiazalea	<input type="checkbox"/> Bizkorra	<input type="checkbox"/> Zuhurra	<input type="checkbox"/> Kuxkuxeroa	<input type="checkbox"/> Mendekoa	<input type="checkbox"/> Adeitsua	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/> Tristeia	<input type="checkbox"/> Ulerkorra	<input type="checkbox"/> Librea	<input type="checkbox"/> Eskuzabala	<input type="checkbox"/> Fidakorra	<input type="checkbox"/> Hipokrita	<input type="checkbox"/>

Taldean eztabaidatzeko

- Bat al datoz zuk zeure buruari buruz egindako deskribapena eta besteek egindakoa?
- Norberak eta besteek gauza bera ikusten dutela uste duzu? Geure burua besteek ikusten gaituzten bezala ikusten dugu?
- Normalean, beste kulturetako irudi bat izan ohi dugu; segur aski, ikuspegi hori ez da bat etorriko kultura horretako pertsonen dutenarekin. Zure iritziz, beste kulturetako pertsonen gutaz duten irudia nolakoa da?



Papalagiak¹

Helburuak:

- Beste giza talde batzuetako kultur adierazpenen aurrean sentsibilizatzea.
- Norberarena ez den kulturarekiko errespetuzko jarrera adieraztea.
- Norberaren kultur nozioa zabaltzea.
- Bakoitzaren ikuspegia mundua ikusteko modu bakarra ez dela kontuan hartzea.

Garapena:

Hezitzaileak ozen irakurri behar du testua. Bitartean, taldeko pertsonak Papalagiak marraztu behar dituzte imajinatzen dituzten bezala. Behar bada, testua berriz irakur daiteke. Ondoren, irudiak ikusi eta Papalagiei buruz eta haien ohiturei buruz eztabaidatu behar da. Papalagiak nortzuk diren jabetu ondoren (Europako gizon-emaume zuriak), azaltzen diren galderen inguruan eztabaidatu behar da.

Materiala: "Papalagiak" testua eta irakurri ondoren eztabaidatzeko galderak.

Iraupena: 20 minutu.

Papalagiak

"Papalagiek gerripekoz, zerriaz eta animalia-azalez estaltzen dute gorputza; hermetikoki hain estu lotzen dituzte euren buruak, giza begiak edota eguzki-izpiak ere ezin baitira barnera sartu, zuri kolorega bilakatzen zaie gorputza eta zuhaitz sendoz osatutako baso batean hazten den lore bat bezain nekatuta daudela dirudi. Oinak larru moldagarri bezain gogorraz biltzen dituzte. Normalean, larru suabea elastikoa da eta ongi hartzen du oinaren forma, ez ordea, larru gogorrak. Animalia-azal lodiz eginda daude. Animalia hil, uretan jarri, labanaz larrutu, kol-

patu eta eguzkitan luzaroan zintzilikatzen dute, gogortu eta ondu arte.

Hori erabiliz, Papalagiek bi alboak altuak dituen kanoa antzeko bat eraikitzen dute, oinari atxikitzeko tamaina egokia duena. Kanoa bat eskuineko oinarentzat eta beste ezkerrekoarentzat. "Oin-ontzi" txiki horiek orkatiletan lotzen dituzte soka eta gako bidez, oina kapsula horren barnean izateko, barraskiloa bere etxean egoten den bezalaxe. Papalagiek egunsentitik ilunabarrera arte izaten dituzte larruok soinean, bai eta bidaiatzen dutenean edo dantzatzen dire-

* Adaptado de: Colectivo AMANI (1994). Educación Intercultural. Madrid: Ed. Popular. S.A.

nean ere. Bero handia dagoenean edota ur-ekaitz tropikal bat hasi baino lehen ere janzten dituzte.

Papalagiak pobreak dira, gauzen atzetik ero moduan ibiltzen dira eta. Gauzarik gabe ezin dute, inolaz ere, bizirik iraun. Dortoka baten oskolarekin tresnaren bat egiten dutenean –ilea txukuntzeko erabiltzen dute–, estalki bat egiten dute tresna horrentzat, eta estalkiarentzat kaxa bat egiten dute, kaxa handiago bat.

Papalagiek janaria egiteko duten etxola batean sartzean, janaria prestatzeko ontzi-piloa ikus daiteke; ezinezkoa da guztiak batera erabiltzea.

Badakizue, anaiok, nik diodan guztia neure begiez ikusi dudala, ez dudala ezer gehitu, ezta asmatu ere".

1. Irakurri eta gero

- Nolakoak dira Papalagiak? Zer iruditzen zaizkizue haien ohiturak?
- Kultura horretan bizitzea gustatuko litzaizueke? Zergatik?
- Zein herriri buruz ari da? Nor dira Papalagiak?

2. Nor diren azaldu eta gero

- Papalagiak Europako gizon-emakume zuriak dira. Tuiavii Samoako buruzagiak horrela deskribatu zituen Tivean, Hego Pazifikoan, 1929an, Europan zehar egindako bidaia baten ondoren.
- Zer iruditu zaizue deskribapena?
- Zergatik uste duzue horrela ikusten duela?
- Nola sentitzen zarete zuen kulturaz ari dela jakinda?
- Aldatu al da batere orain arte zuen kulturari buruz zenuten ikuspegia?
- Zer gertatzen da beste zenbait kultura gurearen ikuspegitik aztertzen dugunean?



Bideoa proiektatzen den bitartean

Silueta

Helburuak:


- Gure kulturari buruzko estereotipoak zalantzan jartzea.
- Gure kulturari buruz dugun irudiaz jabetzea.
- Gure kulturari buruz norberak dituen estereotipoak eta besteek dituztenak elkarrekin nola bizi daitezkeen eztabaidatzea.


Garapena:

1. Giza silueta bat, benetako tamainan, marraztu behar da zatar-paperean eta bertikalki zatitu bi zati berdinetan. Eskuineko aldean beste kulturek gurearekiko dituzten estereotipoak azaltzen dira. Nola uste dugu ikusten gaituztela beste kulturetako pertsonak? Zein etiketa jartzen dizkigute besteek? Ezkerrean gure kultura gure ikuspegitik nola ikusten dugun azaltzen da, guk barnetik dugun ikuspegia.
2. Taldeko pertsona bakoitzak lau paper eranskailu ditu. Bitan, beste kulturek gutaz dituzten estereotipoei buruzko ideiak idatzi behar dituzte, eta beste bietan, guk geure kulturari buruz dugu ikuspegia.
3. Norberaren ideiak gainerakoei jakinarazteko, siluetaren alde bakoitzari dagokion lekuan erantsi behar dira.
4. Siluetaren amaierako emaitza irakurri behar da, eta hauen gainean eztabaidatu: desinformazioa gertatzeko izan daitezkeen arrazoiak, errealitate desberdinei buruzko ezjakintasuna eta gorputz bera osatzen duten alde bietako ideiak bateratzeko proposamenak.

Materiala: Zatar-papera, paper eranskailuak.

Iraupena: 60 minutu.





Jardun dezagun kulturari buruz

Helburuak:

- Kultura-kontzeptuari buruzko aurretiazko ideiak antzematea.
- Taldeko ideiak eta kontzeptuak bateratzea.
- Entzuteko jarreran eztabaidatzea eta elkarrekin hitz egitea.

Garapena:

Kultura-kontzeptuak iradokitzen dizkion lau hitz idatzi behar ditu taldeko pertsona bakoitzak.

- Ondoren, talde txikitan bildu eta aurrez idatzitako kulturaren ezaugarriak bateratu behar dira; terminoaren definizioa egiten saiatu behar dute, bai eta egiten zaizkien galderei erantzuten eta iruzkina egiten ere. Ez dago definizio perfekturik idatzi beharrik, ideiak nabarmentzea komeni da.
- Azkenik, talde bakoitzak bere erantzunak azaldu behar dizkie gainerakoei.

Materiala: Galdetegia.

Iraupena: 40 minutu.

Galderak

- Zer da kultura zuentzat?
- Kultura hobeak eta okerragoak, nagusiak eta mendekoak daudela uste duzue? Zergatik?
- Zer jarrera dugu, zuen iritziz, beste kultura baten aurrean? Zein da egokiena eta zein okerrrena?
- Uste duzue gaur egun beste kulturen aurrean jarrera irekia dugula horiek egin ditzaketen ekarpenak ezagutzeko?
- Bi kultura ezberdinen artean gauza desberdinak baino gauza berdina gehiago daudela uste duzue?
- Zer elementu erabil ditzakegu kultura ezberdinetako pertsonak elkarrekin komunikatzeko?



Zer dakigu Indiari buruz?

Helburuak:

- Indiari buruzko aldez aurreko ideiak atzematea.
- Kultura bati eta kultura horretako pertsoneri buruzko aurreiritzi eta estereotipo propioak eta kanpokoak ezagutzea.
- Indiari buruzko ezagutza errealaren eta aurreiritzien arteko elkarrekikotasuna balioztatzea.

Garapena:

Askotan, errealitate bati buruzko aurreiritziak desinformaziotik eta ezjakintasunetik sortzen dira. Gure irudiak saltzen diguten irudian oinarrituta sortzen ditugu, eta ez gure ezagutzan oinarrituta.

- Indiako erlijioari, hizkuntzari, kulturari, paisaiari eta abarri buruzko zenbait galderaren bidez, pertsona bakoitza herrialde horretako errealitateari buruz duen ezagutzaz jabetzen da.
- Azkenik, aurrekontzeptuetan oinarrituta, India nola imajinatzen duten deskribatu behar dute.

Galderei banan-banan erantzun behar zaie, eta, gero, bateratu egin behar dira, Indiari buruz taldeak zer dakien eta zer irudi duen balioztatzeko.

- Elkarrekikotasuna orekatuta dago? Jakiteak, esaten digutenarekin eta kontatzeko moduarekin ez konformatzeak, egiaztatzeak... horrek guztiak aurreiritziak ezabatzen laguntzen du.

Materiala: Lista de preguntas.

Iraupena: 40 minutu.

Zer dakigu Indiari buruz?

- Zein herrialderekin egiten du muga Indiak?
- Zein erlijio daude Indian?
- Zein hizkuntza erabiltzen dira?
- Zer lotura dute Indiako kulturak eta gureak?
- Ezagutzen duzu Indiako idazleren bat?
- Indiako jatorria duen pertsonaia historiko edo publikorik ezagutzen duzu?
- Herrialde horretako pertsonaren bat ezagutzen duzu?
- Eta Indian inoiz izan den norbait? Zer esan dizute?
- Indiaren zer irudi duzu? Nolako da paisaia? Nola bizi da jendea? Zer ogibide dute? Zer ohitura dituzte? Aipatu Indiako zenbait ezaugarri.



Indiarako bidaia

Helburuak:

- Indiaren beste ikuspegi bat ezagutzea.
- Herrialde baten ezagutzan sakontzea: klima, erliebea, ohiturak, artea, etab.
- Indiako errealitateari buruzko aurreiritziak baztertzea.
- Talde-lana egitea.

Garapena:

Nork du beste herrialde bat ezagutzeko bidaia bat egiteko gogo? Zer deritozue Indiara joateari? Planteamendu honetan oinarrituta, taldeari herrialde honetan –Gujerat estatuan zehar, hain zuzen ere– zeharreko ibilbide bat antolatzea proposatzen zaio. Garrantzitsua da guztia ongi antolatzea, ikusi gabe ezer ez uzteko.

- Taldea talde txikiagotan banatu eta bidaia prestatzeko ikerketa-gaiak banatzen dira:

1 Taldea: Ekipaje-zerrenda. Horretarako, eremu horretako klima zein den ikertuko dute (batez ere, bidaiaren sasoiari dagokiona), bai eta han bizi direnen janzkera, erliebea eta lurralde-mota ere, besteak beste.

2 Taldea: Ibilbidea eta kultur agenda. Xarma duten lekuak, monumentuak eta eraikin interesgarriak, landa-eremuak, ohiturak, arte-adierazpenak, ikuskizunak eta museoak, etab. ikertuko dituzte.

3 Taldea: Kontu praktikoak: Txertoak, ostatuak, otorduak...

- Azkenean, lanak bateratu egin behar dira, eta, gero, azaltzen diren galderari buruz eztabaidatu behar da.

Materiala: Internet, bidaia-gidak...

Iraupena: Bi ordu inguru. Datu erlatiboa da (gutxi gorabeherakoa), ikerketa--mailaren arabera.

Zenbait galdera

- Aurkitu dituzue Indiari buruz ez zenekizkiten gauzak?
- Zer egin zaizue deigarrien?
- Aldatu da zertxobait herrialde horri buruz zenuten irudia?
- Zer behar da, zuen iritziz, zenbait aurreiritzi baztertzeko?
- Zer prestakuntza behar da bidaiari kultur topaketa izan beharrean kultur talka gerta ez dadin?



Emanaldiaren ondoren

Bideo-foruma

Helburuak:

- Proiektatu ondoren izandako inpresioak jasotzea.
- Bideoaren edukiko alderdi esanguratsuenak hartu eta ateratako ondorioak eta sententzioak partekatzea.

Garapena:

- Bideoa ikusi ondoren, taldean eztabaidatu behar dira emanaldian izandako sentipenak eta deigarrien iruditutako gauzak, eta ikasleek egiten zaizkien galderei erantzun behar diete.
- Gero, bideo-forumeko alderdi batzuk guztiei azaldu eta denen artean eztabaidatu behar dira, hauek adibidez:

Materiala: Guztien artean erantzuteko galderak.

Iraupena: 50 minutu.

Guztien artean erantzuteko galderak:

- Zer iruditu zaizue bideoa?
- Zer iruditu zaizue deigarrien? Zerk harritu zaituzte?
- Zein mezu helarazi nahi du? Zein ideia nagusitan oinarritzen da bideoaren edukia?
- Bideoan musika, gastronomia, dantza, erlijio eta abarren fusioaren eta trukearen hainbat historia eta elkarrizketa kontatzen dira. Zer iritzi duzue desberdintasunean oinarritutako topaketa horietaz?
- Aldatu al da Indiari buruz lehendik zenuten irudia? Zertan?
- Pentsa ezazue bideoaren laburpena idatzi behar duzuela. Idatzi 6 edo 7 lerrotan bideoaren edukiaren laburpena.



Jarrera kontua

Helburuak:

- Bideoaren edukietan sakontzea eta horiei buruz hausnartzea.
- Kultur artekotasunaren fenomenoaren aurrean jarrera bat hartzea.

Garapena:

Jarduera hau garatzeko balioen barometroaren teknika erabiltzea proposatzen da.

- Taldeko kideei bideoan hitzez hitz jasotako zenbait gairi –erlijioa, artea, folklorea...– buruzko baieztapenak –iruzkinak, iritziak, ikuspegiak...– dituen orri bat banatu behar zaie. Irakurri eta banan-banan aztertu behar dira kultur artekotasunaren ikuspegitik. Pertsona bakoitzak baieztapenen alde edo kontra agertu behar du.
- Gela lurrean marraztutako lerro batekin banatzen da bitan. Dinamizatzaileak banan-banan irakurri behar ditu esaldiak. Pertsonak lerroaren alde batean edo bestean jarriko dira, baieztapenaren alde edo kontra dauden. Beraien jarrera arrazoitzeko eskatu behar zaie, bai eta baieztapena nola ulertu duten, zein esanahi ematen dioten azaltzeko ere. Une horretan, taldea eztabaidatzen hasiko da.

Dinamika bera erabiltzen da baieztapen guztiekin. Batzuetan talde guztiak jarrera bera izango du. Kasu horretan, dinamizatzaileak kontrako jarrera har dezake, eztabaida sortzeko.

Materiala: Gidoi-zatiak.

Iraupena: 30 minutu.

Iradokizunak: Parte-hartzaileak lerrotik distantzia desberdinerara koka daitezke, adostasun- edo desadostasun-mailaren arabera. Zenbat eta adostasun handiagoa izan, lerrotik urrunago kokatuko dira, eta, alde badaude baina erreparatzeak badiutuzte, beste eremutik hurbilago jar daitezke. Jarrera adierazteko modu bisuala da; batzuek besteen iritzia ikusteko aukera izango dute.

Gidoi-zatiak

- Desberdintasunak baino antzeko gauza gehiago ditugu.
- Arte-mota guztiek komunikatzen dute zerbeit eta jendea gehiago hurbilazten dute. Oso paper garrantzitsua izan dezakete.
- Jende askok dio bat-egiteak nahasmendua eragiten duela, puru izan behar dela.
- Ez dut uste komunikabideek eragindako gertaerak, irudiak eta aurreiritziak adina oztopo daudenik.
- Kapitalismoak hirugarren munduko herrialdeen baliabideak eskuratu nahi ditu, baina ez ditu hango langileak nahi. Kapitalismoak dirua nahi du, jendea ez da garrantzitsua.
- Ezagutzen ez dugun, kontrolatzen ez dugun makina baten zati txiki batzuk gara. Sistemak kontrolatzen gaitu eta jendeak sistemaren ispilu eta betaurrekoetatik begiratzen du.
- Kapitalismoaren sistema globalizatuak ez du nahi herrialde horiek aurrera ateratzea, haien boterearentzako mehatxu izan baitaitezke.
- Arteak bere hizkuntza du, unibertsala da.
- Erlijioek ez dute biolentzia sustatzen.
- Arteak adimena eta bihotza irekitzen laguntzen du.
- Hemen ez dakigu Indiari buruzko ezer. Pobrezia, behiak eta hondamendiak baino ez ditugu ezagutzen.
- Dantza klasikoaren, dantza tradizionalaren, dantza garaikidearen aniztasuna ikusita, kontinente hori hobeto ulertzeko ezagutzari leiho txiki bat irekitzeko aukera dago.
- Maskara bat dugu begi aurrean. Kasta baten maskara bat dut nik. Zuk, ordea, kristau baten maskara... Ez dugu geure buruari ispiluan begiratzeko ausardiarik.
- Giza bizitzaren sentsibilitatea galtzen ari gara.





Saltzen diguten irudia

Helburuak:

- Komunikabideetatik beste kultura, herri eta gizarteei buruz jasotzen dugun informazio urriaz jabetzea.
- Prentsatik beste kultur taldeei buruz jasotzen ditugun berri-motak eta horiei ematen zaien trataera aztertzea.
- Aurreiritziak eta estereotipoak sortzeko komunikabideek transmititzen duten irudiak zein eragin duen aztertu eta balioztatzea.

Garapena:

- Taldeari ikerketa-lan bat egitea proposatzen zaio, komunikabideak eta horiek erakusten duten herri edo kultura batzuen irudia aztertzeko.
- Horretarako, lan-taldeak sortu behar dira, eta egunkariak eta aldizkariak banatu. Ikerketak bi une ditu:
 1. Beste kultura, gizarte edo arrazei buruz prentsan azaltzen diren berrien eta/edo artikuluen kopurua zenbatzea.
 2. Berrietan talde horiei ematen zaien trataera aztertzea, batez ere, zertaz jarduten duten, zein irudi-mota ematen duten...
- Azkenik, iritziak azaldu behar dira, talde bakoitzak ateratako ondorioak besteei agertzeko, eta komunikabideek (prentsa, irratia eta telebista) beste kultur taldeei buruz ematen diguten irudiaren inguruan eztabaidatu, bai eta gure irudimenak horietan nola eragiten duen aztertu ere.

Materiala: Egunkariak eta aldizkariak.

Iraupena: 60 minutu.

Iradokizuna: Komunikabideetako irudien gaia lantzeko, ALBOANen Lerro artean irakurtzen izeneko unitate didaktikoan –Mensajero argitaratua– azaltzen diren beste proposamen batzuk gomendatzen ditugu.



Korn

Helburuak:

- TÛ Begi aurrean kultur maskarak ditugula kontuan hartzea.
- Maskarek beste taldeekiko komunikazioan zenbateraino eragiten duten hausnartzea.

Garapena:

Bideoaren azken zatian azaltzen da pertsona guztiak bizi garela maskarekin. Bizi dugun erlijioaren, kulturaren, gizartearen arabera, maskara bat zein bestea dugu.

- Ondoren proposatzen ditugun galderak –banan-banan lehenik eta taldeka gero– gai hauei buruz hausnartzeko balio dute: benetan nor garen eta zer maskara dugun, maskarek nola bereizten gaituzten eta nola, askotan, beste kultur eta gizarte-taldeekin komunikatzea eragozten diguten.
- Gero, guztion iritziak azaldu behar dira.
- Azkenean, hainbeste maskara eramanarazten dizkiguten arazoei aurre egiteko proposamenak egin behar dira.

Materiala: Taldean pentsatzeko galderak.

Iraupena: 50 minutu.

Taldean pentsatzeko

- Nor zara zu?
- Zer maskara duzu gizarte- edo kultur talde bateko kide izateagatik?
- Zertarako balio dute maskarek? Zertarako erabiltzen ditugu?
- Zer eragin dute maskarek beste pertsona edo taldeekin erlazionatzen garenean?
- Zer dago maskaren atzean?
- Nola egin aurre maskarek...
 - pertsonalki eragiten dizkiguten arazoei?
 - gizartean eragiten dituzten arazoei?
 - mundu mailan eragiten dituzten arazoei?



Hitz egingo al dugu?

Helburuak:

- Gure inguruan beste identitate batzuk daudela ikustea.
- Gogoia beste pertsona eta talde batzuekin komunikatzeko modu berriei irekitzea.
- Errealitate desberdinekin enpatizatzea.

Garapena:

- Nortasun ezberdineko hiru pertsonari dagozkien hiru kasu planteatzen dira.
- Talde handia hirutan banatu behar da, horietako bakoitzak kasu bat azter dezan.
- Egiten diren galderak irakurri eta horien inguruan eztabaidatu ondoren, bateratu egin behar dira, kasu bakoitza azaltzeko eta beste pertsona edo talde batzuekin komunikatzeko sortzen diren erronkei buruz eztabaidatzeko.
- Azkenik, talde bakoitzak bere kasua azaldu behar die gainerako taldeei, eta irtenbidea proposatu; zenbait proposamen bateratzen saiatu behar da, gure taldean bertan martxan jartzeko.

Materiala: Kasuak eta denek elkarrekin hausnartzeko galderak.

Iraupena: Ordubete.

Isabel familiarekin etorri da gure auzora bizitzera. Haren amak lan egiten duen enpresak proposamen bat egin dio gure hirian lan egiteko, eta duela zenbait aste etorri da senarrarekin eta alabekin. Isabel gaur joango da lehen aldiz institutura. Down-en sindromea du, eta gainerako ikasleen eta bere gaitasunak ez dira berdinak.


- Zer harrera egingo diogu gelan Isabeli?
- Zer arazo edo erronka egongo dira egoki dadin?
- Zer egin dezakegu arazo horiek ekiditeko?
- Nola komunikatuko gara berarekin, errazago egoki dadin?

Daniel gure argazkigintza-ikastaro berean eman du izena. Ikastaroan oso giro polita dago, eta askotan egiten ditugu planak: elkarrekin atera, taldeka gaikako erreportajeak egin... Daniel gormutua da eta zeinu-hizkuntzaz komunikatzen da, baina pertsonen ezpainak irakur ditzake. Ikastaroko inork ez daki hizkuntza hori.

- Zer harrera egingo diogu ikastaroan Danieli?
- Zer arazo edo erronka sortuko dira harekin komunikatzeko?
- Zer egin dezakegu arazo horiek ekiditeko?

Jasmina larunbateroko aisialdiko taldean eman du izena. Jasmina Marokoko hiri batean jaio zen, Tetuanen. Duela zenbait hilabetetik, gure auzoan bizi da familiarekin, eta beren kulturaren eta erlijio musulmanaren ezaugarri asko gordetzen dituzte. Besteak beste, Jasminak beti estaltzen du burua belo batekin; beloa bere erlijio-identitatearen zeinu bat da.

- Zer harrera egingo diogu Jasminari aisialdiko taldean?
- Zer arazo edo erronka egongo dira egoki dadin?
- Zer egin dezakegu arazo horiek ekiditeko?
- Nola komunikatuko gara harekin, bere kultur eta erlijio-izaerarekin gatazkarik sortu gabe, errazago egoki dadin?



Taldeka landutakoa gela osoari azaltzea

- Talde bakoitzak landu dituen kasuak eta ateratako ondorioak gainerakoei azaltzea.
- Pentsa dezagun gure ingurunean, errealitate desberdineko jendearekin bizi gara, pertsona desberdinekin: immigranteak, minusbaliatuak...
- Egunez egun gure inguruan errealitate horiek antzematen ditugu?
- Ohiko jardunetan aritzen dira eta ohiko gauzak egiten dituzte? Non daude?
- Haiekin topo egiteak kezkatzen gaitu?
- Zer gerta daiteke haiekin topo egitean?
- Komunikatzen badakigu?
- Zein jarrera dugu pertsona horiekin topatzean eta haiekin batera bizitzean?
- Zer egiten dugu errazago egoki daitezen?
- Zer egin dezakegu?



Zertan ari gara?

Helburuak:

- Kultur artekotasunari buruz gure auzoan egindako lan-esperientziak ezagutzea.
- Zenbait talderekin harremanetan jartzea.
- Lankidetzaren plan bat antolatzea.

Garapena:

- Pertsona immigranteekin eta/edo haien zatiak gure herrian edo auzoan gauzatzen ari diren jardueren diagnostikoa egiteko proposatzen da. Horretarako, taldeari informazio eske joateko hainbat gure proposatu behar zaizkio: erakunde publikoak, ikastetxeak, osasun-zentroak, gizarte-zerbitzuak, gizarte-erakundeak, etab.
- Zer galdetu nahi dugun definitu behar da: nor ari da lanean?, zertan ari dira?, zer behar dago?, zer falta da?, etab. Talde bakoitzak erakunde batera edo batzuetara joan behar du informazio eske.
- Informazioa lortzean, gure herrialdeko immigranteen mapa egin behar da: non daude?, non ez daude?, zein arazo dute?, etab.
- Mapa aurrean dugula, azterketa bat egin eta zenbait proposamen aurkeztu behar dizkiegu herrialdeko taldeei, erakundeei, familiei eta erakundeei, bi kulturen arteko komunikazioa eta ezagutza hobetzeko. Proposamen horiek aurrez elkarrizketatutakoei aurkeztu behar dizkiegu.

Materiala: Mapa egiteko papera eta errotuladoreak.

Iraupena: 60 minutuko zenbait saio.





Gizarte integratu batentzako dekalogoia

Helburuak:

- A Kultur artekotasunari erantzuna emateko proposamenak aurkeztea.
- Kultur artekotasunari aurre egiteko proposamen zehatzak egitea.
- Lan-proposamen bateratuak adostea.
- Egindako lana beste pertsona batzuei aurkeztea.

Garapena:

- Kolektibo desberdinek elkarrekin erlazionatzeko dituzten moduen aurkezpen orokorra egin behar da. Gida honen aurkezpenean azaltzen dira harreman--modu horiek: integrazioa, asimilazioa, bereizketa eta bazterketa.
- Taldeka, proposamen horietako bat hautatu behar dute, gutxiengoentzat zein gehiengoentzat aproposena iruditzen zaiena. Eta gizarte hori lortzeko kontuan hartu beharreko 10 urrats edo 10 jarrera aipatu behar dituzte.
- Taldean proposamenak azaldu eta 10 proposamen interesgarrienak hautatu behar dira.
- Gero, proposamen horiek nola hedatu pentsatu behar da: lokalean edo auzoan kartelak ipinita, egunkarietara gutunak bidalita, irratian proposamenak agertuta, etab. Proposamenak ezagutarazteko modu bat hautatu, ekin-tza-plana egin eta martxan jarri behar da.

Materiala: Proposamenak hedatzeko behar den materiala.

Iraupena: 60 minutuko 3 saio eta proposamena gauzatzeko behar den denbora.



Zatoz eta ezagutu India

Helburuak:

- Indiako ondarearen, kulturaren eta artearen edertasuna eta aberastasuna ikertu eta aurkitzea.
- Indiaren irudi berri eta positibo bat transmititzea.
- Talde-laneko teknikak eta hizkuntza publizitarioa erabiltzea.
- Sormena eta irudimena garatzea.

Garapena:

Zenbait publizista-talde kontratatu ditu Indiako Turismo Idazkaritzak, herrialdea eta hango turismo-aukerak ezagutarazteko.

- Talde bakoitzak herrialdeko kulturaren eta artearen edertasuna eta aberastasuna ezagutarazteko ardura du; horretarako, turismoa indartzeko kartel bana erabiliko dute. Kartelak egiteko, Indiako argazkiak eta irudiak bilatu behar dira, bai eta Indiara joateko gonbita egiten duten esloganak sortu ere.
- Kartelak egin ondoren, ikastetxean jar daitezke, jendeari Indiaren irudi berri eta positiboago bat transmititzeko.

Materiala: Indiako irudiak eta argazkiak. Kartelak egiteko materiala.

Iraupena: 60 minutu.





Behiekiko maitasuna¹-I

Helburuak:

- Beste kultur adierazpenak ulertzeko eta epaitzeko norberak dituen balio etnozentrikoak argitzea.
- Errealitate berberaren aurrean ikuspegi desberdinak daudela ikustea.
- Jarrera bat argi eta garbi eta irmotasunez argumentatzeko estrategiak erabiltzea.

Garapena:

Zergatik ohoratzen dituzte behiak Indian? Zer zentzu du horrek gaur egun? Eragiten dituen ondorioek merezi dute?

- Galdera horietan oinarrituta, eztabaida bat sortu behar da Indian behiak hiltzea eragozten duen erlijio-tabu-ari buruz. Eztabaidan pertsona hauek hartuko dute parte:
 - Elikaduraren sektoreko nazioarteko korporazio bateko ordezkaria.
 - Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenak errentagarri bihurtzen aditua den nekazaritza-ingeniarria.
 - Gobernuak elikadura-kanpaina bat egiteko ardura eman dion sendagilea.
 - Kultur maila handiko mendebaldeko turista.
- Eztabaida prestatzeko, lau talde egingo dira; bakoitzak aipatutako jarrera bat hartuko du. Argudioak prestatu ondoren, talde bakoitzak pertsona bat aukeratuko du eztabaidan ordezkari izateko. Jarrera argudiatzeko Interneten begiratzeko gomendioa egin behar zaie (behiak-India, etab.), datu erabilgarriak aurkituko baitituzte eztabaida prestatzeko.
- Hasieran proposatutako galderari guztien artean erantzun bateratu bat ematean amaituko da jarduerak.

Materiala: Indian behiei dieten maitasuna azaltzen duten arrazoiak.

Iraupena: 60 minutu.

¹ Iturria: SAEZ, P. (1995). El Sur en el aula. Zaragoza: Bakea Ikertzeko Mintegia.



Behiekiko maitasuna² - II

Helburuak:

- Beste kultur adierazpenak ulertzeko eta epaitzeko norberak dituen balio etnozentrikoak argitzea.
- Egoera gatazkatsuei aurre egiteko biolentziarik ez dela erabili behar ulertzea.
- Gatazkei irtenbide baketsuak emateko estrategiak bilatzea.

Garapena:

- Taldeko kideei Indiako behien egoera deskribatzen duen testu bat eman behar zaie.
- Banaka testua irakurri ondoren, galdera batzuetan oinarrituta, beste kultura batzuk epaitzeko gure gizarteak duen jarrera etnozentrikoari buruzko hausnarketa egitea proposatzen da.

Materiala: Indiako behiekiko maitasuna azaltzen duten arrazoiak eta hausnartzeko galderak.

Iraupena: 60 minutu.

Indiako behiekiko maitasuna

Hinduek bizirik dagoen guztiaren ikur direlako ohoratzen dituzte behiak. Kristaumentzat Maria Jainkoaren Ama den bezalaxe, behia Bizitzaren Ama da hinduentzat. Beraz, Indian egin daitekeen sakrilegiarik handiena behi bat hiltzea da. Hilketa bat ere ez da behiak hiltzeagatik eragiten den profanazio izugarria bezain larria.

Aditu askoren iritziz, behiak ohoratzea da Indian pobrezia eta gosea eragiten dituen lehen arrazoia. Mendebaldean trebatutako zenbait agronomoren iritziz, behiak hiltzeko debekuaren ondorioz ezertarako balio ez duten ehun milioi animalia bizi dira han. Behiak ohoratzeak nekazaritzaren eraginkortasuna txikitzen duela diote; ezertarako balio ez duten animaliek ez dutelako esnerik ez eta haragirik ere ematen, eta balio duten animalientzat eta gose diren gizakientzat landutako lurrengatik eta elikagaiengatik lehiatzen baitira. (...)

Baliorik gabeko animalia antiekonomiko asko sobran daudela dirudi, eta, gainera, egoera hori indiarren doktrina irrazionalen ondorio zuzena dela dirudi. Delhi, Kalkuta, Madras, Bonbai eta Indiako beste hirietan izugarri harritzen dira turistak galduta dabilzan behiek duten askatasunarekin. Animaliak kalean dabilta; ukulitik kanpo jaten dute, azokan;

² Iturria: SAEZ, P. (1995). El Sur en el aula. Zaragoza: Bakea Ikertzeko Mintegia.

lorategi publikoetan sartzen dira; espaloietan egiten dute kaka; eta, bidegurutze jendetsuetan hausnartzeko geratzen direnean, auto-ilarak eragiten dituzte. Landa-eremuan, behiak edozein errepide-bazterretan biltzen dira eta luzaro ibiltzen dira trenbidean noraezean.

Behiei dieten maitasunak era askotara eragiten du bizitzan. Gobernuko funtzionarioek behientzako babesetxeak zaintzen dituzte; behi lehor eta zaharren jabeek horietan utz ditzakete behiak inolako gasturik gabe. Madrasen, Poliziak gaixorik dauden behi galduak bildu eta zaindu egiten ditu osasuntsu jarri arte, eta tren-geltokiaren alboan dauden zelai txikietan bazkatzen uzten die. Nekazarientzat behiak familiartekoak dira, girlandaz eta borlaz edertzen dituzte, beraien alde erreztatzen dute gaixotzen direnean eta bizilagunei eta apaizari hots egiten diete txahal berri bat jaiotzen denean. India guztian hinduek hormetan zintzilikatzen dituzten egutegietan, emakumezko gazte eta ederrak agertzen dira, bitxiz josita, baina berezitasun bat dute: behi zuri eta lodien gorputz handiak dituzte. Esnea erdi emakume erdi zebu diren jainkosa horien errapeetatik sortzen da.

Giza aurpegi eder horietatik hasita, egutegietako behi horien itxura ez da kalean ikusten ditugunena bezalakoa. Urteko zatirik handienean, hezurak dira ezaugarriak nabarmenena. Egia esan, oso esne gutxi ateratzen da haien errapeetatik; izan ere, animalia argal horiek txahal bat baino ez dute edoskitzen heldutasuneraino. Indiako ohiko behi zebu konkordunen batez besteko esne gaingabetuaren ekoizpena urteko 500 libra baino txikiagoa da. Ohiko esne-behiek 5.000 libra baino gehiago ekoizten dituzte, eta ez da harritzekoa txapeldunek 20.000 libra baino gehiago ekoiztea. (...) Edozein urtetan, Indiako behi zebuen erdiak ez du esne-tantarik ere ematen.

Baina egoera are larriagoa da, behiekiko maitasuna ez baita gizakiarenganako maitasunaren parekoa. Musulmanek txerriak baztertu baina behi-haragia jaten dutenez, hindu gehienek behi-hiltzaile direla sentitzen dute. Azpikontinente indiarra India eta Pakistanen artean banatu baino lehen, urtero izaten ziren komunitate bien arteko gatazka odoltsuak, musulmanen behiak hil ez zituzten. Aipagarria da, adibidez, 1917an Bihar-en gertatutakoa: hogeita hamar pertsona hil eta ehun eta hirurogeita hamar herrixka musulman arpilatu zituzten –huts-hutsak utzi zituzten–. Behiek eragindako gatazken oroitzapenek, hain zuzen, segitzen duten Indiaren eta Pakistanen arteko harremanak ospintzen.

Istiluak deitoratu bazituen ere, Ghandi behiekiko maitasunaren defendatzaile sutsua zen eta behiak hiltzea erabat debekatu nahi zuen. Indiako Konstituzioa idatzi zenean, behien eskubideen kode barregarri bat sartu zuten, ia-ia behiak hiltzeko edozein modu debekatu zuten. Hortik aurrera, zenbait estatutan behiak hiltzea debekatu dute, baina beste zenbaitetan salbuespenak onartzen dira oraindik ere. Behien kontua gatazka eta istilu ugariaren iturri da gaur egun ere; hinduen eta gainerako komunitate musulmanen artean ez ezik, boterean dagoen Kongresuko Partiduaren eta behiak maitatzen dituzten muturreko hindu-taldearen artean gatazka ugari sortzen dira. 1966ko azaroaren 7an, ehun eta hogeita mila pertsonak behiak hiltzearen kontrako manifestazioa egin zuten Indiako Parlamentuaren egoitzaren aurrean. Manifestazioan santoi biluziak ziren buru; kantatu egiten zuten eta behi-gorotzezko errauts zuriarekin estalita zuten gorputza, ilenezko girlandaz apainduta. Zortzi pertsona hil ziren eta berrogeita zortzi zauritu ziren gero izan ziren istiluetan. Gertaera horien ondoren, santioek baraualdiak egin zituzten herrialde osoan; Muni Shustril Kumar zuten buru, Behiak Babes-terko Kanpainarako Partiduen arteko Batzordearen lehendakaria.

Behiekiko maitasuna zentzugabea iruditzen zaie, bai eta suizida samarra ere, nekazaritzako eta abeltzaintzako industria-tekniko berrietan trebatutako mendebaldeko behatzaileei. Eraginkortasunean aditua denak ezertarako balio ez duten animalia guztiak hartu eta eginkizun egokia eman nahi die. (...)

Marvin Harris

Indian behiei dieten maitasuna azaltzen duten arrazoiak

Ingurune fisikoarekiko egokitzapena: Montzoi-eurien irregularitasunaren ondorioz, epe luzeko jokia batzuk izan behar dituzte. Behi zebuek idortasuna eta muturreko kondizioak oso ongi jasaten dituzte.

Nekazaritza: Behiak behar-beharrezkoak dira idiak sortzeko; euriteak iristean zelaien goldaketan tiratzeko erabiltzen dira idiak, eta tiratzeko baliabiderik gabe uztak galduko lirateke.

Garraioa: Ohiko energia-iturri gisa petroliorik edo gasik ez dagoen herrialde batean, behiak eta idiak dira garraioibide nagusiak.

Etxean erabiltzeko: Behi-gorotzak sukalderako erregai gisa erabiltzen dira;ugar mantsoa eta garbia ematen duenez, bazkaria egiten ari den bitartean beste lan batzuk egiteko aukera ematen du. Etxean, alfonbra gisa ere erabiltzen da, hautsa sortzea eragozten baitu.

Elikadura: Familiak, hurrek eta zaharrek batez ere, kontsumitzeko esnea; gainera, behia beheko kastentzako elikagai izan daiteke, horiek ez baitute erlijio-debekurik.

Industria: Behiak hiltzen direnean, azala larrugintzan erabiltzen da; larrugintza oso hedatua dago Indian.

Gizarteko gatazkak: Nekazari pobreek aberatsen zelaietan askatzen dituzte behiak, bazka dezaten. Lur-jabeek ezin diete minik eman, eta Poliziari hots egiten diote, babesetara eraman ditzaten; handik jasotzen dituzte gero jabeek.

Hondakinak: Behiak hiri eta landetan aske bizi dira, eta indiarrek jaten ez dituzten hondakinez –arroz-lastoa, gari–zahia– elikatzen dira.

Behien kontra biolentziarik ez erabiltzea pobrezia aurre egiteko erantzun kulturala da, bai eta egunero bizirik irauteko sortzen diren gatazkak konpontzeko tresna ere, beti ere energia-kontsumo baxuko ekosistema baten barnean.

Hausnartzeko

- Zer bururaten zaizue Indiako behi sakratuen gatazka konpontzeko?
- Zer erabilgarritasun du egoera gatazkatsuei aurre egiteko biolentziarik ez erabiltzeak?
- Zer eragin dute mendebaldeko gure balioek beste adierazpen kulturalak epaitzen ditugunean?
- Egin honi buruzko hausnarketa: nola egiten die aurre gure gizarteak bertan ditugun arazoei –adibidez, sortzen ditugun hondakin- eta zabor-piloari–?



Indiako festa

Helburuak:

- Indiako ohiturak eta ezaugarri kulturalak ezagutu eta transmititzea.
- Talde-lanerako ahaleginak, eginkizunak eta helburuak koordinatzea.
- Indiako alde positiboa eta kultur aberastasuna agerian jartzea.

Garapena:

Indiako kultur aberastasuna beste talde batzuei ezagutarazteko, Indiako festa bat antolatzea proposatzen da.

- Festan, musika (Indiakoa) etengabe jarrita dagoela, herrialdeko hainbat ohitura³, ezaugarri eta kultur bereizgarri ezagutaraziko dituzten standak ipin daitezke. Prestaketa ugari egin behar direnez, taldeko kideen artean lana antolatu eta banatzea komeni da. Esate baterako, eginkizunak horrela bana daitezke:

- **Apainketa-taldea:** Talde batek festa globoz, kandelaz, intsentsuz, standak estaltzeko ehun finez, hormetako gabonetako argiez, paper distiratsuz ebakitako izarrez eta abarrez giro dezake, betiere, kolore beroak erabiliz: gorria, laranja, horia, urre-kolorea...

Zorua edo hormak Rangoliz apain daitezke; gainazal busti batean egiten diren marrazki simetrikoak dira, eta koloretako hauts edo igeltsuez margotzen dira.

<http://www.geocities.com/Heartland/Woods/9843/images/iruthayakamal.gif>

- **Bindi-tailerra:** Bindia emakumezkoek erabiltzen duten apaingarria da. Bekainen artean ipini edo pintatzen da. Antzina biribilak izaten ziren, marroiak edo gorriak. Gaur egun modako apaingarria da, eta diseinu askotarikoak ikus daitezke: obalatuak, linealak, pintzel finekin egindako marrazki konplexuak, purpurinaz apaindu-takoak...

- **Taller de henna: Henna-tailerra:** Azala hennaz tatuatzea da ekialdeko, Arabiako eta Magrebeko emakumezkoen apaintzeko ohitura. Hennak azalean marka utz dezan, hostoak xehe-xehe ehotzen dira, hautsa hainbat aldiz iragazi eta gero koipeekin nahasten da; horrela lortzen den oreka azala tindatzeko erabiltzen da. Nahasketa merkatuan aurki daiteke.

Henna aplikatu ondoren, limoiz eta azukrez egindako disoluzio batekin busti behar da. Horri esker, azalak hobeto xurgatzen du henna eta kolore ilunagoa lortzen da. Zenbait orduren buruan, oreka kontu handiz kendu behar da tatuatutako diseinuaren estalkia kentzeko; tatuajeak bi aste inguru irauten du azalean.

Diseinuak Interneten bila daitezke, hennazko tatuajei buruzko bilaketa eginez.

³ ALBOANen Indiari buruzko bi erakusketa ditugu lokalak girotzeko, bai eta Indiako merkataritza justurako produktuak ere.

- **Tea dastatzea:** Indian tea era berezi batean prestatzen dute. Eltze batean ur pixka bat jarri behar da berotzen, jengibre xerratxo bat gehitu eta, irakitean, tea eta azukrea bota; nahastu eta urari pixka bat gehiago irakiten utzi behar zaio. Gero, ur hotz pixka bat edo esnea gehitu behar zaio eta berriz jarri behar da sutan (minutu bat inguru). Horrelaxe edan edo beste zenbait espezia gehi dakizkioke –kanela edo iltzea–.
- **Merkataritza justua:** Talde batek Indian eskuz egindako produktuak sal ditzake. Horretarako, herrialde horrekin merkataritza justuan aritzen den erakunderen batekin harremanetan jarri eta zenbait produktu eskatu behar dira.

Materiala: Tailer bakoitzerako aipatu den materiala eta standak muntatzeko behar dena.

Iraupena: 120 minutu prestatzeko eta egun erdia festarako.

Iradokuzunak: Festa hainbat lekutan egin daiteke: eskolako patioa, herriko edo auzoko plaza, gimnasioa... erabil daitekeen lekuaren eta parte-hartzaileen kopuruaren arabera.

Ikusi dugu beste herrialde batzuen inguruan dugun edo sortu dugun irudia, askotan, ez datorrela bat errealitatearekin. Egiaztatu dugu kultura bat ezagutzen dugunean mendebaldeko betaurrekoak kendu eta mundua beste begi batzuek behatzen ikasten dugula; ikusten duguna ez da imajinatu dugunaren berdina. Mundua beste begi batzuekin ikusteko, beste betaurreko batzuek ipintzeko, ikertzeko eta ezagutzeko gonbita egiten dizuegu. Munduan beste herrialde eta kultura asko daude ezagutzeko, bai eta behera bota beharreko hainbat mito ere. Zure esku dago ezagutarazten diguten irudia onartzea eta ezagutza sinplea eta desitxuratua izatea edo ez. Eman mundua ezagutzeko urratsa eta, gero, konta iezaguzu nolakoa den.

Ikasi, halaber, zeure buruari ispiluan begiratzen; ikusi nolakoa zaren, nolakoak garen eta nola ikusten gaituzten gainerakoek. Ordura arte, ez ezazu inor epai.

Bibliografia

- Colectivo AMANI (1994). Educación Intercultural. Análisis y resolución de conflictos. Madrid: Popular, S.A.
- DÍAZ AGUADO, M.J. (2003). Educación Intercultural y aprendizaje cooperativo. Madrid: Pirámide.
- SÁEZ, P. (1995). El Sur en el aula. Zaragoza: Bakerako Ikerketa Mintegia
- VV.AA. (1996). La tolerancia en la escuela. Barcelona: Ariel Educación.

- VV.AA. (1998). Vivamos la diversidad. Barcelona: La Catarata.
- VV.AA. (2000). Educar la tolerancia. Sevilla: Díada.
- VV.AA. (1996). El Derecho a la Diferencia. Materiales curriculares para la Educación en Valores. Madrid: Hezkuntza eta Kultura Ministerioa.

Web

Heziketa-materialen edukiak dituzten WEB orriak

Indiari buruzko informazioa bilatzeko

Izena NAZIO BATUEN CYBERSCHOOLBUS-A

Zer da? Nazio batuek Interneten sortutako hezkuntzagunea.

Zer du? Giza eskubideei, ingurumenaren babesari eta osasunari buruzko hezkuntza--materiala. Munduko herrialdeei buruzko estatistikako datu-base osoa eta erabilgarria. Heziketa-materialen katalogoa duen liburutegia.

Hizkuntzak Gaztelania eta ingelesa.

Web orria <http://www.un.org/Pubs/CyberSchoolBus/spanish/>

Correo electrónico globalschoolbus@un.org

Izena EDUALTER. Bakerako, garapenerako eta kultur artekotatuen erako heziketa--baliabideen sarea

Zer da? Bakeari, garapenari eta kultur artekotasunari buruzko hezkuntza--baliabideak partekatze gunea. Edualter Sedupaz eta Sodepau-en ekimena da.

Zer du? Lau gune ditu: argitalpenen datu-basea, dokumentu eta proposamen pedagogikoak, ekitaldien eta pertsona eta taldeen helbideen agenda. Hitzeko eta zerranda bidezko bilaketak egiteko aukera ematen du, bai eta norberak informazioa zuzenean sartzeko aukera ere (horrela, baliabide didaktikoak partekatze tresna interaktiboa izatea da helburua). Martxan dauden sentsibilizazio-kanpainari buruzko atal bat du eta, beste atal batean, lotuneak daude.

Hizkuntzak Euskara, gaztelania, katalana eta galegoa.

Web orria <http://www.pangea.org/edualter>

Helbide elektronikoa edualter@pangea.org

Izena MUGARIK GABEKO HEZKUNTZA

Zer da? Garatze-bidean dauden herrialdeetan heziketa- eta gaitze-lanak egiten dituen garapenerako GKEa da.

Zer du? Sentsibilizatzeko materialak (liburuak, karpetak, erakusketak, etab.), lankidetzeta--gaieiei eta egoera bereziei buruzko artikulua, gaur egun indarrean dauden kanpainak material pedagogikoekin osatuta, abian dauden proiektuei buruzko informazioa, lan-poltsa eta borondatezko lanari buruzko informazioa.

Hizkuntzak Gaztelania.

Web orria <http://www.pangea.org/educsf/>

Helbide elektronikoa educsf@pangea.org

Izena DOCE. Heziketa-dokumentuak

Zer da? Heziketari eta baliabide didaktikoei buruzko informazio- eta dokumentazio--zentroa; hezitzaileei trebatzeko eta eguneratzeko baliabideak eskaintzen dizkieten irakasle eta dokumentalisten talde batek sortu zuen 1987an.

Zer du? Heziketari buruzko dokumentazioa, baliabide didaktikoak eta hezkuntzaren sektoreko erakundeen eta enpresen gida bat --posta elektronikoko bidez eska daitezke--.

Hizkuntzak Gaztelania.

Web orria <http://www.eurosur.org/DOCE>

Helbide elektronikoa doce@eurosur.org

Izena EDUCANET

Zer da? Hezitzaileei, heziketari aplikatutako teknologia berriak erabiltzeko gai izan daitezen, teknologia eta baliabide pedagogikoak eskaintzeko heziketa--sarea da.

Zer du? Hezkuntza-baliabideetarako, liburutegietarako, jokoetarako, hitzaldietarako eta konektatu beharreko beste zenbait zerbitzueterako lotuneak ditu.

Hizkuntzak Gaztelania.

Web orria <http://www.educanet.net>

Helbide elektronikoa info@educanet.net

Izena EIP. Association mondiale pour l'école instrument de paix - World Association for the School as Instrument of Peace

Zer da? Eskola bake-tresna gisa erabiltzeko munduko erakundea da, giza eskubideak eta bakea zer den erakusteko nazioarteko GKEa.

Zer du? Historia, helburuak, jarduerak, argitalpenak, liburutegia eta dokumentazio--zentroa, aholkularitza.

Hizkuntzak Ingelesa, frantsesa eta gaztelania.

Web orria

<http://www.eip-cifedhop.org/espagnol/eipmonde/eipmonde.html>

Helbide elektronikoa cifedhop@mail-box.ch

Izena PNTIC. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berrien Programa

Zer da? Hezkuntza-baliabideak eskaintzen dituen Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren programa.

Zer du? Proposamen ugari egiten ditu: dokumentu orokorrak eta eskola jakinetarako ariketak besteak beste. Heziketa-etapen araberako baliabideak, eskola--liburutegiak, datu--baseak, trukeak eta esperientzia telematikoak, heziketarako zerbitzari interesgarriak.

Hizkuntzak Gaztelania.

Web orria <http://www.pntic.mec.es>

Helbide elektronikoa webmaster@alerce.pntic.mec.es

Indiari buruzko web orriak

<http://www.guiadelmundo.com/paises/india/>: información general: datos básicos, mapas, himno, historia, población, turismo,

<http://es.india-tourism.com/index.html>: información general, cultura, naturaleza, etc.

<http://membres.lycos.fr/soloindia/>: información turística general sobre la India.

<http://www.eurosur.org/guiadelmundo/paises/india/index.htm>: historia, estadísticas, mapas.

[http://www.viajar.com/guias/\\$loc=1:4:36](http://www.viajar.com/guias/$loc=1:4:36): guía turística de la India.

http://www.masdeviajes.com/art_destino.cfm?item=461: web con direcciones útiles de guías, mapas, libros fotográficos sobre la India.